



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urriaren 10a

111. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- 10-22/PES-00121. Galdera, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea Nafarroan aplikatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 10-22/PES-00125. Galdera, COVID-19a dela-eta 2020ko martxotik abendura bitarte izandako kudeaketa-
ren gainean Kontuen Ganberak egindako txostenean aipatzen diren kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioa-
ren erantzuna (5. or.).
- 10-22/PES-00165. Galdera, Greenpeacek nitratoek eragindako ur-kutsadurari buruz eginiko txostenaren
gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 10-22/PES-00188. Galdera, Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarrari buruzkoa. Foru Diputazioaren
erantzuna (8. or.).
- 10-22/PES-00189. Galdera, Nafarroako kultur ondarearen narriadurari buruzkoa. Foru Diputazioaren
erantzuna (9. or.).
- 10-22/PES-00190. Galdera, Nafarroako kultur ondarearekin lotuta ezarri diren zehapenei buruzkoa. Foru
Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 10-22/PES-00191. Galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 27, 28 eta 29 artikulue-
tan xedatutakoa ezin betetzearen gaineko txostenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 10-22/PES-00192. Galdera, Kultura Departamentuak ondare historikoaren inguruan hartu edo emandako
erabaki eta txostenen aurka ezarritako jarduketa judizialei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 10-22/PES-00193. Galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 29.1 artikuluan xedatu-
takoa bete eta betetzeari buruz Kultura Departamentuak emandako jarraibideei buruzkoa. Foru Diputa-
zioaren erantzuna (12. or.).
- 10-22/PES-00194. Galdera, balio artistiko eta kulturala duten Nafarroako higiezinak kontserbatzeko behar
diren jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 10-22/PES-00196. Galdera, eremu ahul gisa izendatutako eremuetan uraren kutsadurari aurrea hartzeko
eta hura murrizteko 2018-2021 aldian jarduteko programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna
(14. or.).

- 10-22/PES-00197. Galdera, pandemiari aurre egiteko Sodenaren eta CENen lankidetzarekin Norbera Babesteko Ekipamenduak erosteko espedienteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 10-22/PES-00198. Galdera, Osasun Departamentuan eta bere erakunde autonomoetan lan egiten duten kazetarien kopuruari eta komunikazio eta/edo sare sozialetako eginkizunetan ari diren pertsonen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 10-22/PES-00199. Galdera, metabertsoa garatu duen enpresa hautatzeko irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 10-22/PES-00200. Galdera, Avento enpresari Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeke enkargatu zaion azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 10-22/PES-00201. Galdera, Nafarroako Kirol Azpiegituren Planean 2022rako aurreikusitako helburuen betetze mailari eta planaren 2023ko ekintzetarako epeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 10-22/PES-00202. Galdera, Neguko Olinpiar Jokoetarako hautagaitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 10-22/PES-00203. Galdera, atletismoko pista estali bat eraikitzeke kalkuluaren zenbatespena enkargatu zaion enpresa espezializatuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 10-22/PES-00204. Galdera, ematen duten zerbitzuan ordutegi osoa ez duten liburutegi publikoen ordutegiak luzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 10-22/PES-00205. Galdera, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean ordezkapenak betetzeko irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

F saila:
GALDERAK

10-22/PES-00121. Galdera, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea Nafarroan aplikatzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea Nafarroan aplikatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak informazio eskaera egin du (PES-00121). Hona horri buruz informatu beharrekoa:

1, 2, 3 eta 5 zenbakiekin aurkeztutako galderei dagokienez, uztailaren 14an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman da 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.

Aipatu foru legea onetsi aurretik, Nafarroako Gobernuak maiatzaren 23ko 2/2022 Foru Lege-dekretua onetsi zuen, zeinaren testuaren bidez foru ordenamendu juridikoan txertatzen baitira aipatu oinarrizko arauaren funtsezko eskubide eta betebeharrak, bai eta egonkortze prozesu honetan izapidetu beharrekoak diren langileen hautapen prozeduren antolaera egokirako gainerako aurreikuspenak ere.

Foru lege-dekretu horrek aukera eman zuen Gobernuaren maiatzaren 25eko bilkuran hiru foru dekretu onartzeko. Haien bidez, lan publikoaren eskaintza partziala onetsi zen, Administrazio Erroan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eta Hezkuntzan 3.588 plaza betetzeko, urriaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko aparteko egonkortze prozesuaren barnean.

2021eko abenduaren 29an, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean. Legearen hitzaurrean adierazten denez, enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasun handia murrizteko beharrezkoak diren egiturazko erreformei aurre egiteko beharrari erantzun nahi zaio, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin bat. Europako Batzordeak Plan horren aldeko ebaluazioa egin du.

Ildo horretan, 20/2021 Legearen xedea da bitarteko langileen aldi baterako izaera indartzea, izaera hori eskuratzeko prozedurak argitzea, haien kargu-uzteen arrazoiak finkatzea, bitarteko langileen izendapena lanpostu hutsak betetzeko denean izendapenaren gehieneko iraupena mugatzea abusu-prebentziorako neurri gisa, eta gehieneko iraunaldiak ez errespetatzearen ondorioak zehaztea.

Beste alde batetik, lege horrek aurreikusten du administrazio publikoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bat egitea, egungo egoera arintzeko berehalako neurri gisa, eta enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko eta gehienez ere % 8ko egiturazko behin-behinekotasuna izateko.

Aipatutako abenduaren 28ko 20/2021 Legeak hamargarren xedapen gehigarrian xedatzen du hura Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko

dela Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian eta NFEBHLOn ezarritako moduan, gure autogobernua dela eta.

Izan ere, Foruaren Hobekuntzaren 49.1 artikulua emandako eskumenaren arabera, Nafarroak, bere foru araubidearengatik, eskumen osoa du Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatu-araubidearen gainean, Estatu-oinarrizko legediak funtzionario publikoei aitortzen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuz.

Horrenbestez, gure autogobernua egikaritzuz, maiatzaren 23ko 2/2022 Foru Lege-dekretuak – uztailaren 1eko 19/2022 Foru Lege gisa baliozkotu eta onetsi zen gero– Nafarroako Foru Komunitatean administrazio publikoen zerbitzuko langileak arautzeko zegoen foru araudi propioa egokitu zuen, foru ordenamendu juridikoan sartuz Estatu-oinarrizko araudi horren funtsezko eskubide eta betebeharrak, aldi baterako langileei dagokienez – kasu honetan administrazio-kontratazioari lotuak–, bai eta egonkortze prozesu honetan tramitatu behar diren langileen hautapen prozedurak behar bezala antolatze behar diren gainerako aurreikuspenak ere.

Prozesua Nafarroako Gobernuak foru lege-dekretu hori onetsita amaitu zen, eta elkarriketa eta negoziazioa ardatz hartuta egin zen. Lehenengo, Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean dauden sindikatuekin hitz egin zen, eta, gero, Parlamentuko alderdiekin.

Prozesua 2021eko azaroan hasi zen, lantaldea eratu zenean, partaide hauek zituela: Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia, Hezkuntza Departamentuko eta Osasun Departamentuko arduradunak eta Mahai Orokorreko ordezkari sindikalak (LAB, CCOO, AFAPNA, ELA eta UGT).

Iragan apirilaren 1ean Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzaren egonkortze prozesuak martxan jartzeko jarraibideei buruzko ebazpena onetsi ondoren, autonomia erkidego guztiek eta FEMPEk Enplegu Publikoa Koordinatzeko Estatu- Batzordean aurretiazko lana egin eta gero, areagotu egin ziren Nafarroako lantaldearen lanak, eta maiatzaren 13an Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak foru lege-dekretuaren testuaren proposamena aurkeztu zien sindikatuei, alegazioak egin zituzten. Haietako batzuk behin betiko testuan sartu ziren.

Aldi berean, maiatzaren 13an ere, foru lege-dekretuaren testuaren proposamena aurkeztu zitzaizen alderdi politikoei, eta bilera bat egin zen haiekin. Proposamenak eta hausnarketak bidali zituzten Nafarroako Gobernuarekin izandako elkarriketa prozesua eta gero.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 5ean

Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-22/PES-00125. Galdera, COVID-19a dela-eta 2020ko martxotik abendura bitarte izandako kudeaketaren gainean Kontuen Ganberak egindako txostenean aipatzen diren kontratuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19a dela-eta 2020ko martxotik abendura bitarte izandako kudeaketaren gainean Kontuen Ganberak egindako txostenean aipatzen diren kontratuei buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko uztailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak informazio eskaera egin du (PES-00125); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

COVID-19a dela-eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak 2020ko martxotik abendura bitarte egin duen kudeaketari buruz Kontuen Ganberak egindako txostenak ondorioztatzen duenez, ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak

70,48 milioi euro egin zuen 2020ko abenduaren 31n; horietatik 14,88 milioi besterik ez ziren kontratu formalizatu eta kontratazioaren atarian argitaratutakoei zegozkienak. Kontratu horiek direla-eta, hauxe jakin nahi dut:

1- Kontratu guztien zerrenda eta haietako bakoitzaren gastua, ondasun eta zerbitzuen gastu arruntaren 70,48 milioi horietatik.

Zure informazio eskaerari erantzuteko, "Respuesta.xlsx" izeneko Excel taula erantsi da.

2-- Kontratu horietako bakoitzaren izapidea zertan den.

"Covid cap 2.xlsx" taula erantsi da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko uztailaren 26an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

(Oharra: Aipatutako eranskinak eskuragarri dituzte foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketarako Ágora sisteman).

10-22/PES-00165. Galdera, Greenpeacek nitratoek eragindako ur-kutsadurari buruz eginiko txostenaren gainekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Greenpeacek nitratoek eragindako ur-kutsadurari buruz eginiko txostenaren gainekoa. Galdera 2022ko maiatzaren 27ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Greenpeacek nitratoek eragindako ur-kutsadurari buruz eginiko txostena dela eta (10-22-PES-00165). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Greenpeace erakundearen txostena helbide honetan kontsultatu daiteke:

<https://es.greenpeace.org/es/sala-de-prensa/comunicados/el-67-de-las-aguassuperficiales-analizadas-en-navarra-por-la-red-ciudadana-de-vigilancia-estancontaminadas-por-nitratos/>

Departamentu honek bazuen ekimen horren berri. Herritarren ekarpen bat da, zeinaren helburua baita Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta Ebroko eta Kantaurialdeko konfederazio hidrografikoek egiten dituzten analisiak osatzea.

Martzilla, Milagro, Erriberri, Alesbes eta beste udal-mugarte batzuetan nitratoek eragindako kutsadura ezaguna da, eta departamentu honek monitorizatuta dauka. Izan ere, azaleko zein lurpeko ur masa ugari kutsa daitezkeen eremutzat jo ziren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren urriaren 4ko 247/2018 Foru Aginduan. Haren bidez, nekazaritzako nitratoez ura kutsatua izan dezaketen eremuak berrikusi, eta 2018-2021 aldian jarduteko programa onetsi zen.

Arazo korapilatsua da, eta hainbat faktore sar-tzen dira: soroen ongarritze kimikoa, zeina ez baitago kontrolatuta; Nafarroako ubideko eremuan lehorreko lurra uretzalurren bihurtzearen ondorioak; lurretan botatako simaurra, purinak eta/edo digestoak; lurzorua baldintza hidrogeologiko aldatzeko, etab.

Gaur egun, departamentua ebaluatzen ari da nola modelizatu Foru Komunitateko ur masetan nitratoek egotearekin lotura nabarmena duten mekanismoak eta nitrogenoa ematen duten iturrietako bakoitzaren garrantzia, egoera hobetzeko neurri osagarriak ezartzeko. Ildo beretik, 2021-2027 Plan Hidrologikoaren zirriborroak ur masetan dauden nitrogeno-soberakinen kuantifikazioa jaso du, xede berarekin.

Garrantzitsua da adieraztea departamentu honek ebaluatu egin duela nekazaritzako nitratoen kutsadurari buruz Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egindako lau urtean behingo txostena (2016-2019 aldikoa). Helburua izan da Nafarroako eremu kalteberak egokitzea, bitarte horretan azaleko uretan eta lurpekoetan neurtutako nitrato-kontzentrazioak kontuan hartuta. Konfederazioak kontrolguneen sarea ezarri zuen, iturburu, putzu eta ur-lasterrez osatua. Ezin da aldatu kontrolguneen kokapena, eta haien urak aldian behin analizatzen dira, kutsadura atzemateko.

Aurrekoaren ondorioz, Nafarroan ura nitratoez kutsatuta izan dezaketen eremuak ezarriko dira, azalera berriak deklaratu dira, dauden beste batzuk handituko dira, etab.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren geotarian kontsultatzen ahal dira Estatuko arro hidrografiko guztietako eremu kalteberetako kontrolguneak, nitratoen kontzentrazio balioak eta kartografia:

<https://sig.mapama.gob.es/geoportal/>

Halaber, departamentu honek sortutako informazio publikoa, urteko txostenak, esaterako, Nafarroako urari buruzko web-orrian kontsultatzen ahal da, honako helbide hauetan:

Azaleko uren kalitate fisiko-kimikoa kontrolatzeko sarea

Azaleko uren kalitatea kontrolatzeko sare automatikoa

Lurpeko uren kalitate fisiko-kimikoa kontrolatzeko sarea

Aurreko inguruabarrei dagokionez, eta galderari erantzuteko, esan behar da erreferentziako txostenean analisi gutxi egin direla eta udal-mugarte batzuetan baino ez direla egin. Konfederazio hidrografikoek eta Nafarroako Gobernuak ofizialki monitorizatutako kontrolguneek, berriz, sare zabala osatzen dute.

Hala ere, esan behar da Greenpeacearen txostena lagungarria izan daitekeela gizartea sentibilizatzeko nekazaritzako nitratoek gure azaleko eta lurpeko uretan eragindako kutsadurak dakarren arazo larriaz.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 12an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

Txosten hau Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kidea den Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako eskaerari erantzuteko idatzi da. Izan ere, 2022ko maiatzaren 23an idatzi bat aurkeztu zion Nafarroako Gorteetako Lehendakariari, «10-22-PES-00165 galdera parlamentarioa» espedientearen bidez, zeinean hau galdetu baitzuen: Zure ustez zer sinesgarritasun eta zorrotzasun tekniko eskaintzen dute Greenpeacek nitratoek eragindako ur-kutsadurari buruz eginiko txostenak eta Nafarroari buruz dituen emaitzek? Parlamentuko Erregelamenduaren 14.3 artikulua Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 32. artikuluari dagokionez xedatutakoarekin bat, lehendakariak idatzia bideratu du, beharrezkoak diren izapideak egin ondoren, Lehendakariari eskatutako informazioa eman dadin, eskaera egin duen foru parlamentarioari bidaltzeko.

Greenpeace erakundearen txostena helbide honetan kontsultatu daiteke:

<https://es.greenpeace.org/es/sala-de-prensa/comunicados/el-67-de-las-aguas-superficiales-analizadas-en-navarra-por-la-red-ciudadana-de-vigilancia-estan-contaminadas-por-nitratos/>

Sailak bazuen ekimen horren berri. Herritarren ekarpen bat da, zeinaren helburua baita Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Sailak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak eta Kantaurialdeko Konfederazio Hidrografikoak egiten dituzten analisiak osatzea.

Martzilla, Milagro, Erriberri, Alesbes eta beste udal-mugarte batzuetan dagoen nitratoek eragindako kutsadura ezaguna da, eta departamentu honek monitorizatuta du. Izan ere, azaleko zein lurpeko ur masa ugari kutsa daitezkeen eremutzat jo ziren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren kontseilariaren urriaren 4ko 247/2018 Foru Aginduan. Haren bidez, nekazaritzako nitratoez ura kutsatua izan dezaketen eremuak berrikusi, eta 2018-2021 aldian jarduteko programa onetsi zen.

Arazo korapilatsua da, eta hainbat faktore sartzen dira: soroen ongarritze kimikoa, zeina ez baitago kontrolatuta; Nafarroako ubideko eremuan lehorreko lurra urrez biltzen diren ondorioak; lurretan botatako simaurra, purinak eta/edo digestoak; lurzuaren baldintza hidrogeologiko aldakorrak, etab.

Gaur egun, departamentua ebaluatzen ari da nola modelizatu Foru Komunitateko ur masetan nitratoak egotearekin lotura nabarmena duten mekanismoak eta nitrogenoa ematen duten iturrietako bakoitzaren garrantzia, egoera hobetzeko neurri osagarriak ezartzeko. Ildo beretik, 2021-2027 Plan Hidrologikoaren zirriborroak ur masetan dauden nitrogeno-soberakinen kuantifikazioa jaso du, xede berarekin.

Garrantzitsua da adieraztea departamentu honek ebaluatu egin duela nekazaritzako nitratoen kutsadurari buruz Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egindako lau urtean behingo txostena (2016-2019 aldikoa). Helburua izan da Nafarroako eremu kalteberak egokitzea, bitarte horretan azaleko uretan eta lurpekoetan neurtutako nitrato-kontzentrazioak kontuan hartuta. Konfederazioak

kontrolguneen sarea ezarri zuen, iturburu, putzu eta ur-lasterrez osatua. Ezin da aldatu kontrolguneen kokapena, eta haien urak aldi behin analizatzen dira, kutsadura atzemateko.

Aurrekoaren ondorioz, Nafarroan ura nitratoez kutsatuta izan dezaketen eremuak ezarriko dira, azalera berriak deklaratu dira, dauden beste batzuk handituko dira, etab.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren geotarian kontsultatzen ahal dira Estatuko arro hidrografiko guztietako eremu kalteberetako kontrolguneak, nitratoen kontzentrazio balioak eta kartografia:

<https://sig.mapama.gob.es/geoportala/>

Halaber, departamentu honek sortutako informazio publikoa, urteko txostenak, esaterako, Nafarroako urari buruzko web-orrian kontsultatzen ahal da, honako helbide hauetan:

Azaleko uren kalitate fisiko-kimikoa kontrolatzeko sarea

Azaleko uren kalitatea kontrolatzeko sare automatikoa

Lurpeko uren kalitate fisiko-kimikoa kontrolatzeko sarea

Aurreko inguruabarrei dagokionez, eta galderari erantzuteko, esan behar da erreferentziako txostenean analisisiek banaketa espazial eta adierazgarritasun mugatua dutela, konfederazio hidrografikoek eta Nafarroako Gobernuak ofizialki monitorizatutako kontrolguneek osatutako sare zabalarekin alderatuta. Erabilitako neurgailuak baliagarriak dira parametro baten balio-maila gutxi gorabehera zehazteko.

Lortutako emaitzek ez dute ekarpen adierazgarri egin konfederazio hidrografikoetako eta Nafarroako Gobernuko agintari eskudunek jada aurkeztu dituzten ondorioak ez direnak ateratzeko.

Hala ere, esan behar da Greenpeacearen txostena lagungarria izan daitekeela gizartea sensibilizatzeko nekazaritzako nitratoek gure azaleko eta lurpeko uretan eragindako kutsadurak dakarren arazo larriaz.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 31n

Ekonomia Zirkularraren Zerbitzuko zuzendaria:
Pedro Zuazo Onagoitia

10-22/PES-00188. Galdera, Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ainhoa Aznárez Igarza andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarrari buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 17ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Klima Aldaketaren Nafar Herritar-batzarrari buruz (10-22-PES-00188). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioak Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 15.3 artikuluan xedatutakoarekin lotutako hainbat gairi buruzko galdera egin du. Hain zuzen ere, artikulua horrek ezartzen du kontseilariaren foru agindu bidez onetsiko dela Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarraren osaera, antolaketa eta funtzionamendua.

Hona eginiko galderen erantzunak:

1. Kontuan hartuz larrialdi klimatikoa eta Klima-aldaketari buruzko Adituen Gobernuarteko Taldearen azken txostenak, noizko aurreikusten da aipatu foru aginduaren onespina?

Erantzuna: Erregelamendu bidezko beste garapen batzuetarako ez bezala, 4/2022 Foru Legeak ez du eperik ezartzen Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarraren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautuko dituen foru agindua onesteko. Hala ere, 2022ko bigarren seihilekoan landuko da etorkizunean izanen duen arauketa, zeinak kontuan hartuko baititu foru lege horren 15.3 artikuluan jasotako alderdiak.

2. Zer mekanismo aurreikusten da batzarraren gomendioak gauzatzeko?

Erantzuna: Oraindik ez daude definituta mekanismo horiek, baina asmoa da herritarrek parte hartzeko jada dauden mekanismoak indartzea.

Mekanismo horiek arau hauetan daude jasota: Aarhusen (Danimarka) 1998ko ekainaren 25ean egin zen hitzarmena, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeari, herritarrek erabakiak hartzean parte hartzeari eta justizia eskura izateari buruzkoa; 27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubiak arautzen dituen (2003/4/EE eta 2003/35/EE zuzentarauak txertatzen ditu), eta 12/2019 Foru Legea, martxoaren 22koa, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzkoa.

3. Zer mekanismo aurreikusi behar da bermatze aldera batzarraren prozesua herritar guztien-ganaino hedatzea, ohar daitezen erronkaren tamainaz eta behar ditugun eraldaketa sakonez?

Erantzuna: Oraindik ez daude definituta mekanismo horiek, baina aurreikusita dago batzarrari buruzko informazioa herritarren eskura jartzea eta berriazko webgune batean argitaratzea, non batzarraren saioei, aurrerapenei eta emaitzei buruzko informazio guztia eguneratuko baita.

4. Zer mekanismo aurreikusiko da aurreikusita zozketa egiteko, zeinak bermatuko duen batzarrean kide izan daitezkeen pertsona guztien parte hartzea?

Erantzuna: Oraindik ez dago definituta mekanismo hori, baina, pertsona horiek aukeratzeko, ausazkotasuna bermatuko duen eta aukeraturakoen kalitatea eta ordezkagarritasuna ziurtatzeko aukera emanen duen metodologia aplikatuko da.

5. Zer ezaugarri sozial (geruza) hartuko da kontuan lagina gizartearen ordezkaria izan dadin?

Erantzuna: Oraindik ez daude definituta ezaugarri horiek, baina, besteak beste, irizpide hauek hartuko dira kontuan: adina, generoa, hezkuntza-maila, errenta, jatorri geografikoa eta hiri- edo landa-ingurunean biziitzea.

6. Zer irizpide erabiliko da aipatu aginduan aurreikusten den adituak hautatzeko? Eta koordinazio eta laguntza tekniko-logistikoko talderako?

Erantzuna: Aditu independenteek ospe zabala izan beharko dute arlo hauetan: klima, energia, biodibertsitatea, ingurumena eta gizarte-erlaldaketa. Eta koordinazio eta laguntza tekniko-logistikoko talderako, aurreikusita dago diziplina anitzeko talde bat osatzea, batzarra prestatzeko, martxan

jartzeko eta laguntza logistikoa emateko lan teknikoak bidera ditzan.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 3an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

10-22/PES-00189. Galdera, Nafarroako kultur ondarearen narriadurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako kultur ondarearen narriadurari buruz Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko ekainaren 17ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00189), zeinaren bidez galdetzen baitu, 2005etik gaur arte, babesaren duten higiezinaren narriadurari buruz jasotako salaketa, erreklamazio edo komunikazio kopurua, higiezinaren zerranda eta egin diren jarduketak. Hau da Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Gure kalkuluen arabera, 2005etik gaur arte, Ondare Historikoaren Zerbitzuak 5.000 komunikazio jaso ditu babes-maila ezberdineko eraikinen kontserbazioaren inguruan. Normalean, udalen eta norbanakoen bidez jaso dira, bitarteko askotatik (deiak, mezu elektronikoak, erregistroa...). Gogoratu behar da babes-mailaren bat duten 12.061 eraikin edo higiezin daudela identifikatuta, eta gehienak hirigintzako udal planetan jasota daudela.

Komunikazio horien ondorioz egin diren jarduketari dagokienez, era guztietakoak daude: errazak direnak, hala nola aholkularitza ematea edo zalantzak argitzea; konplexuagoak direnak, eta obrak edo antzeko jarduketak behar dituztenak,

eta tartekoak, hala nola bisita teknikoak, txostenak edo proiektuak.

Ez dagoenez parlamentariak eskatu duenaren antzeko dokumenturik edo txostenik, kontsulta egin dezake Nafarroako Gobernuaren Ondare Historikoaren bulegoetan. Legegintzaldi honi dagokionez, jasotako komunikazio hauek aipa ditzakegu:

– Arartekoa Zazpi erreklamazio jaso dira:

Q18_832, Iharteko monasterioaren (Lete) egoerari buruz

Q20_015 eta Q20_017, energia eolikoei buruz

Q21_477, Tabar mendilerroan parke eolikoa jartzearen kontra aurkeztutako alegazioei buruz

Q21_704, Miranda Argan eguzki-plakak jartzeari buruz

Q21_931, Zizurko parke eolikoari buruz

Q22_535, Puiun eguzki-plakak jartzeari buruz

– Gardentasunaren Kontseilua:

24/2020 espedientea, Ondare Historikoak Iruñeko Eroritakoen monumentua eta Askatasunaren Plaza kultur intereseko toki deklaratzeari emandako ezezkoarekin lotutako eskaera.

– Kontserbazioari buruzko txosten teknikoak: udalen eskaerei erantzuteko emandakoak –higiezinari dagozkion udalerraren, poligonoaren eta lurzatiaren arabera antolatuta–, eta Nafarroako Gobernuak unitateei eta Estatuko Administrazio Orokorrari bidalitako ofizioak. Hauek dira: 2019: 294 txosten udalentsat + 113 ofizio = 407 komunikazio

2020: 265 txosten udalentsat + 120 ofizio = 385 komunikazio

2021: 347 txosten udalentsat + 186 ofizio = 533 komunikazio

– Ondare Historikoaren Zerbitzuaren zuzeneko jardueri eta jarduketei buruzko memoria:

Dokumentuak Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren webgunean kontsulta daitezke, lotune honetan: <https://www.culturavarra.es/eu/memoriak-zerbitzu-karta>

- 2019: 336. orrialdetik 345. orrialdera

Iruritako dorrea

Altsasuko Berasaluze dorrea

Tafallako Beratxa dorrea

Ablitasko gaztelua

Orbaizetako arma-ola

Lizarrako Gustavo de Maeztu museoa

Erriberriko errege-erreginen jauregia

Iratxeko Andre Maria

Bertizko Jaurerria

Iruñeko katedraleko klaustroa

- 2020: 329. orrialdetik 336. orrialdera

Ablitasko gaztelua

Iratxeko Andre Maria

Orbaizetako arma-ola

Cortesko zubia

Erriberriko Santa Brigita

Erriberriko errege-erreginen jauregia

Iruñeko katedraleko klaustroa

Saigosko zubia

Vianako harresia

Erriberriko Andre Maria

Iruñeko Rozalejoko markesaren jauregia

Iruñeko salestarren antzinako komentua

Tafallako errekoletoen antzinako komentua

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 8an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00190. Galdera, Nafarroako kultur ondarearekin lotuta ezarri diren zehapenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako kultur ondarearekin lotuta ezarri diren zehapenei buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 17ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko uztailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak galdera ida-

tzia egin du (10-22/PES-00190), zeinaren bidez eskatu baitu 2005etik gaur arte ezarritako zehapenen zerrenda, haietako bakoitzari dagozkion higiezinak, zenbatekoak eta zioak zehaztuta. Hau da Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ez zaie zehapenik ezarri higiezin jabeei.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko uztailaren 21ean

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00191. Galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 27, 28 eta 29 artikuluetan xedatutakoa ezin betetzearen gaineko txostenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 27, 28 eta 29 artikuluetan xedatutakoa ezin betetzearen gaineko txostenei buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 17ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko uztailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak galdera ida-

tzia egin du (10-22/PES-00191), zeinaren bidez eskatu baitu Ondare Historikoaren Zerbitzuak NKOFLren 27. artikulutik 29. artikulura xedatutakoa betetzeko ezintasunari buruz egin dituen txostenen kopurua. Hau da Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ez dago halako txostenik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko uztailaren 21ean

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00192. Galdera, Kultura Departamentuak ondare historikoaren inguruan hartu edo emandako erabaki eta txostenen aurka ezarritako jarduketa judizialei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kultura Departamentuak ondare historikoaren inguruan hartu edo emandako erabaki eta txostenen aurka ezarritako jarduketa judizialei buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 17ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko uztailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak galdera idatzia egin du (10-22/PES-00192), zeinaren bidez eskatu baitu 1995etik gaur arte Kultura Departamentuak Ondare Historikoaren arloan hartu dituen erabakien eta egin dituen txostenen aurka bideratu diren jardun judizialen zerrenda. Hau da Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Eristainen dagoen Andre Maria eliza ondasun inbentariatuaren inguruaren mugaketaren aurkako

demanda baino ez dago. Epaia demandantzailaren aldekoa izan zen.

Zehazki, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2018ko maiatzaren 10ean emandako epaian hau adierazi zen: “Aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsio hau baiesten dugu eta Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren urtarrilaren 12ko 12/2017 Foru Agindua baliogabetzen dugu, ordenamendu juridikoaren kontrakoa delako, babestutako higiezinaren ingurua sortzen duten eta finka mugakideei determinazioak ezartzen dizkieten ebazpenak berresten baititu”.

Horrez gainera, auzitegiek eskatuta, Ondare Historikoaren Zerbitzuak peritu-txostenak idatzi ditu, eta, noizbait, beharrezkoa izan da peritu edo lekuko gisa agertzea prozesu judizialean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko uztailaren 29an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Eснаоla Bermejo

10-22/PES-00193. Galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 29.1 artikuluan xedatutakoa bete eta beterazteari buruz Kultura Departamentuak emandako jarraibideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 29.1 artikuluan xedatutakoa bete eta beterazteari buruz

Kultura Departamentuak emandako jarraibideei buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 17ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko uztailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak galdera idatzia egin du (10-22/PES-00193), zeinaren bidez galdetu baitu ea jarraibide idatzirik dagoen Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Legearen 29.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko eta betearazteko. Hauxe da Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ez dago eskatutakoaren gisako dokumentaziorik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko uztailaren 21ean

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00194. Galdera, balio artistiko eta kulturala duten Nafarroako higiezinak kontserbatzeko behar diren jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, balio artistiko eta kulturala duten Nafarroako higiezinak kontserbatzeko behar diren jarduketei buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 17ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak galdera idatzia egin du (10-22/PES-00194), zeinaren bidez eskatu baitu kontserbazioa bermatzeko jarduketak behar dituzten Nafarroako higiezinaren zerrenda xehakaturik, jarduketaren oraingo egoera, jarduketaren behar eta jabea nor den zehaztuta. Hau da Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Ondare Arkitektonikoaren Inbentarioan kultur ondare higiezinaren osatzen duten 12.061 eraikin daude. Ez dago higiezin horien egoerari buruzko informaziorik, ezin baita zehatz jakin zein den bakoitzaren kontserbazio egoera jabeak ez badio horri buruzko informaziorik ematen Ondare Historikoaren Zerbitzuari.

Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 13. artikulutik 18. artikulura bitartean xedatutakoaren arabera, hiru babes maila daude Ondare Zerbitzuaren partaidetzaren bat duten ondasun higiezinarentariko. Hauek dira maila horiek:

1. maila. Interes kulturalerako ondasunak (IKO): multzo horretan sartzen dira ondasun aipagarriak, eta espresuki jo behar dira halakotzat foru lege horretan ezarritako prozeduraren arabera.

2. maila. Ondasun inbentariatuak (OIN): IKO deklaratzeko baldintzarik bete ez arren, garrantzi nabarmena duten ondasunak dira. Foru legean halakotzat jotzeko prozedura ezartzen da ere.

3. maila. Garrantzi lokaleko ondasunak: toki jakin batean kultur aldetik garrantzi nabarmena duten eta halakotzat deklaratuak diren ondasunak dira; horretarako, toki erakundeek egindako hirigintzako planeamenduko katalogoan sartu behar dira. Katalogatutako eraikinetan esku hartzeko obra lizentzia izapidetzeko, aurretiaz baimena eman behar du Ondare Historikoaren Zerbitzuak.

Interes kulturalerako ondasunen (IKO) eta ondasun inbentariatuaren (OIN) babes maila duten higiezinak dagokionez, Ondare Historikoaren Zerbitzuak haien egoeraren jarraipena egiten du, eta tarte hauetan daude: egoera onargarrian daudenak eta aurri-egoeran daudenak edo sartzeko aukerarik ez dutenak. Udal titulatasuneko higiezin bakarra dago azken egoera horretan: Caparrosoko Santa Fe eliza. 2016an deklaratu zuten IKO, eta gaur egun, haren egitura hondatuta dagoenez, eta eskoratzeko sistemaren ondorioz, ez da komeni esku-hartzerik egitea barnealdean, oso arriskutsua izanen litzatekeelako langileentzat.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 2an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00196. Galdera, eremu ahul gisa izendatutako eremuetan uraren kutsadurari aurrea hartzeko eta hura murrizteko 2018-2021 aldian jarduteko programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, eremu ahul gisa izendatutako eremuetan uraren kutsadurari aurrea hartzeko eta hura murrizteko 2018-2021 aldian jarduteko programari buruzkoa. Galdera 2022ko uztailaren 1eko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, nekazaritzako nitratoez ura kutsatua izan dezaketen eremuak eta 2018-2021 aldirako jarduketan programari buruz (PES-00196). Hori dela eta, hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

– Zer balantze egin du Departamentuak Nafarroako Foru Komunitatean nekazaritzako nitratoez ura kutsatua izan dezaketen eremuetarako jarduketan programaz, urriaren 4ko 247/2018 Foru Aginduan eranskin gisa sartu zen horretaz?

Departamentuak balantze positiboa egin du ura kutsatua izan dezaketen eremuetarako 2018-2020 aldirako jarduketan programetan ezarritako neurriak dagokienez, baita nekazaritzako sektoreak neurri horiek betetzeko moduari dagokionez ere.

2018-2021 aldia dela eta, nabarmendu behar da jarduketan programa aldatu egin zela 2020an, haren eraginkortasuna hobetzeko (147/2020 Foru Agindua, irailaren 15ekoa). Horrez gainera, 3. eremu kalteberan –Zidakos–, jarduketan programa indartu bat onetsi zen, Zidakosen arloan azaleko uretan zegoen nitratoen kontzentrazioaren goranzko joerari buelta emateko.

Hala ere, neurrien programaren aplikazioa eta nekazaritzako sektoreak egindakoa ez da nahikoa izan ura kutsatua izan dezaketen eremuetan uren kalitatea hobetzeko, eta, beraz, neurri berriak

planteatu behar dira hurrengo jarduketan programan.

– Zein dira jarduketan programa horren balantzean Departamentuak positibotzat jotzen dituen alderdiak? Zein dira betetze mailaren aldetik negatibotzat jotzen diren alderdiak?

Alderdi positibo gisa nabarmendu behar da jarduketan programen barruan sartutako neurriak eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta INTIAK egin dituzten informaziorako eta zabalkunderako jarduerak baliagarriak izan direla nekazaritzako sektorea jabetu dadin nekazaritzako nitratoez kutsatutako uren arazoaz. Halaber, esan dezakegu, Europako Itun Berdean jasotako Baseritik Mahaira estrategiarekin bat etorrira, Nafarroako nekazaritzako sektorea aurre-rapausoak ematen ari dela ekoizpen jasangarriago bat duen eredu ezartzeko astiro-astiro.

3. eremuari –Zidakosko alubiala– dagokionez, balorazioa oso positiboa da nekazariak egindako N minimoaren analisei dagokienez. Lurzoruan dagoen nitrogenoari buruzko datuak izateko eta ongarritze dosiak benetako beharrezan araberak doitzeko egiten dira analisi horiek, eta, hala, nitrogeno soberakina murrizten ahal da eta kostuetan aurrezten ahal da, are gehiago ongarriri nitrogenatuaren prezioa biderkatu den honetan.

Jarduketan programaren alderdi negatibo gisa, nekazari askok bete behar dituzten betekizun eta arau guztien berri izateko dituzten zailtasunak aipatu behar dira.

Bestalde, nitratoek uretan eragindako kutsaduraren jatorria lausoa denez, arazoan eragiten duten faktore ugari daudenez eta, lurpeko ur masa handien kasuan, neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko denbora luzea pasatu behar denez, egindako esfortzuak ez dakar uren kalitatea azkar-azkar hobetzea. Eta inguruabar horrek frustrazioa eragiten die nekazariari, ikusten baitute beren ahaleginarekin ez dela ezer lortzen.

– Atzeman edo ziurtatu al du urriaren 4ko 247/2018 Foru Aginduan kutsadura izan dezaketen eremu gisa jasotako horietan gaintu ote diren lurrean ongarriri nitrogenatuak ezartzeko mugak, eranskinaren 2-4 apartatuan aurreikusten direnak? Zehazki zein eremutan?

Jarduketan programaren 2.4 apartatuan ongari nitrogenatuak aplikatzeko ezarritako mugak betetzen diren ala ez egiaztatzeko egindako kontroletan, NPE laguntzen baldintzak direla eta, eremu kutsagarrietan dauden nekazaritzako ustiategietan egindako kontrolen barruan, ez-betetze gutxi hauteman dira. 2018-2021 aldian ikuskatutako ustiategiaren % 4,5etan baino ez da hauteman muga horiek ez direla bete. Horrez gainera, nabarmendu behar da azken 2 urteetan (2020 eta 2021) ez dela egon ez-betetzirik.

Ongarriak aplikatzeko mugak gaintitu diren eremuei dagokienez, hautemandako ez-betetze guztiak ura kutsatua izan dezakeen 2. eremuan – Ebroko alubiala– gertatu dira. Eremu zabalena da.

Mugen ez-betetze horiek tomate, piper eta krufifero soroetan izan dira nagusiki.

– Eranskinaren 4.1 apartatuan aurreikusten diren ikerketa proiektuetatik zein garatu dira jarduketan programaren indarraldian zehar, nitrogeno-lurzorua-ura harremanen ezagupen zientifiko-teknikoa hobetzera eta erabakia laguntzeko sistemak garatzera bideratuak, ahalbidetze aldera ongari nitrogenatuen erabilera egokia, lurzatiaren mailan, errentagarritasun ekonomikoaren irizpideak eta ingurumena babestekoak bateragarri eginez?

Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Institutuaren (INTIA) bitartez, 2018-2021 aldian 34 saiakuntza egin dira ongarrizko nitrogenatuaren inguruan, eta haietako 9 ura kutsatua izan dezaketen eremuetan egin dira. Saiakuntza horien helburu nagusia da laboreek behar duten nitrogenoari buruzko ezagutza hobetzea, dosiak doitzeko eta gehiegizko ongarrizko saihesteko, eta, ondorioz, kutsadura ekiditeko eta errentagarritasuna hobetzeko. Horrez gainera, saiakuntzak egin dira ongari nitrogenatu bereziekin, nitrogeno-galerak murrizteko lagungarriak izan daitezkeen nitrifikazioaren inhibitzaileekin edo gainestaldurekin, eta ongari organikoekin.

Beste alde batetik, INTIA zenbait proiektutan parte hartzen ari da, eta gaietako batzuk dira lurzorua azterketa, lurzoruan dagoen materia organikoa eta ongarrizko. Zehazki, proiektu

hauek garatu dira (kasu bakoitzean landutako gaia adierazten da):

LIFE NAdapta. Ongari organikoen motak eta dosiak

INIA NOCALMES. Ongari organikoak ekoizpen ekologikoan, eta aplikatzeko unea

NEFERTITI. Lurzorua kalitate sarea laborantza estentsiboan

MOSOEX. Lurzoruari materia organikoa gehitzeko estrategiak.

FERTINNOWA. Nutrienteen birzirkulazioa berotegian.

Azkenik, nabarmendu behar da departamentuak eta INTIAk zabalkunderako zenbait jardura egin dituztela azken urteetan, sektoreari jarduketan programetan jasotako neurrien berri emateko eta gorago adierazitako entseguetan eta proiektuetan ikasitakoa ezagutzera emateko. Zabalkunderako jardura horien adibide bat dira 2018-2020 aldian egindako dibulgaziozko 21 hitzaldiak. Haietako 8 ura kutsatua izan dezaketen eremuetan egin ziren.

– Jarduketan programaren indarraldian ingurumenaren zaintzarekin bateragarri diren ekoizpen-sistemak —ekoizpen ekologikoa zein integratua izan— sustatzeko zer plan edo jardura garatu dira zonalde horietan?

Bai ura kutsatua izan dezaketen eremuetan zein haietatik kanpo, jarduketan programa indarrean egon den bitartean, Nafarroako Gobernuak ekoizpen ekologikoa eta nekazaritzako ingurumen arloko sistemak sustatu ditu, Landa Garapenerako Programan sartutako laguntzen bitartez.

Beste alde batetik, erreferentziako aldian, Nafarroan Ekoizpen Ekologikoaren Sustapenerako Plana (2018-2020) garatu da, eta Nafarroako Ekoizpen Ekologikoaren Plan Estrategikoa (2030) lantzen ari da.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 18an

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

10-22/PES-00197. Galdera, pandemiari aurre egiteko Sodenaren eta CENen lankidetzarekin Norbera Babesteko Ekipamenduak erosteko espedienteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, pandemiari aurre egiteko Sodenaren eta CENen lankidetzarekin Norbera Babesteko Ekipamenduak erosteko espedienteari buruzkoa. Galdera 2022ko uztailaren 1eko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-22/PES-00197), pandemiari aurre egiteko SODENAREN eta CENen lankidetzarekin norbera babesteko ekipamenduak erosteko egin zen espedienteari buruz. Hona hemen Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

SODENA eta CENen arteko lankidetzaren bidez Nafarroako enpresentzako (enpresa txiki eta ertainak eta autonomoak, batez ere) NBE materiala erosi eta inportatzeko, Albyn Medical SL enpresa laguntzailea erabili zen. Enpresa horrek ez zuen eskaerarik egin aurretiaz egiaztatu gabe materialak CE homologazio irizpideak betetzen zituela. Halaber, erosketak hobeto kudeatzeko, enpresa hori etengabe egon zen harremanetan NOPLOIrekin (Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua), erosketen kudeaketa egokia bermatzeko kalitateari eta zehaztapenei zegokienez.

10-22/PEI-00220 eta 10-22/PES-00130 espedienteetan emandako erantzunean jakinarazi zen moduan, hornitzeko kanal horren bitartez eskuratutako material guztiak CE homologazio zigilua zuen, eta ziurtagiri horien kopiak bidali dira, baita egindako eskaeren zehaztapen teknikoei buruzko dokumentazio teknikoa ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 1ean

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

10-22/PES-00198. Galdera, Osasun Departamentuan eta bere erakunde autonomoetan lan egiten duten kazetarien kopuruari eta komunikazio eta/edo sare sozialetako eginkizunetan ari diren pertsonen kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasun Departamentuan eta bere erakunde autonomoetan lan egiten duten kazetarien kopuruari eta komunikazio eta/edo sare sozialetako eginkizunetan ari diren pertsonen kopuruari buruzkoa. Galdera 2022ko uztailaren 1eko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera idatzia (10-22-PES-00198)

dela eta, hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Hauek dira Osasun Departamentuaren eta lotutako eremuen plantillan egon eta komunikazioaren edo/eta sare sozialen arloko prestakuntza egiaztatua lanpostuaren edo lan-profilaren definizioan kontuan hartzen zaien profesionalen kopurua eta eboluzioa, aldiotako bakoitzean:

– 2011-2015 aldia: profesional bat

– 2015-2019 aldia: bi profesional

– 2019-2023 aldia: bost profesional

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betetz.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 2an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

10-22/PES-00199. Galdera, metabertsoa garatu duen enpresa hautatzeko irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, metabertsoa garatu duen enpresa hautatzeko irizpideei buruzkoa. Galdera 2022ko uztailaren 1eko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (Na+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du

metabertsoa garatu duen enpresa hautatzeko irizpideei buruz (10-22/PES-00199). Hona hemen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1.- Zer irizpideri jarraitu dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak metabertsoa garatu duen enpresa hautatzeko 11.500 € + BEZaren kostuarekin?

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua aurretiaz ari zen lanean Nafarroako Gobernuaren metabertsoa sustatzeko. 2022ko urtarrilaren 31n, You Media enpresak gai honi buruzko iragarki bat argitaratu zuen, orrialde osokoa, Nafarroan argitaratzen den egunkari batean. Une horretan, enpresa hori zen arlo horretan esperientzia eta bezeroak zituen bakarra

eta, beraz, bermearekin jarduten zuena. Horrez gainera, departamentu honen xedea da enplegua sustatzea Foru Komunitatean, bertan dauden enpresen bidez; zehazki, You Media Nafarroan finkatutako sozietate bat da eta, eratu zenetik gaur arte, zenbaitetan egin du lan lurralde honetan izan diren gobernuekin.

Alderdi horiek kontuan hartuta, harremanetan jarri ginen enpresa horrekin eta proposamen koherente bat aurkeztu zion departamentu honi, Nafarroako Gobernuaren metabertsoaren zerbitzuaren inguruan planteatu ziren xedeekin bat zetorren aurrekontuarekin (11.500 € + BEZa). Berrito aipatu nahi ditut xede horiek hemen. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak planteatutako helburuetako batzuk dira hauek: agertoki teknologiko berri honen aurrean, enpresei eta erakundeei bidea erakusteko baliagarria izan den espazio bat izatea, etorkizuneko ingurunetzat dugun horretan berrikuntza sustatzea, eta, azkenik, Nafarroa abangoardia teknologikoan kokatzea.

2) Bilerarik egin al zen erabakiak hartzeko? Hala baldin bada, honako hau eskatzen da: Bilera kopurua, bilera bakoitzeko parte-hartzaileen kopu-

rua, akten kopiak eta esleipenaren gaineko dokumentazio oro.

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeak zenbateko txikiko kontratuen gaineko araubide berezi bat ezartzen du 81. artikuluan. Zehazki, hau dio legeak: «Zenbateko txikiko kontratuak dira balio zenbatetsia 15.000 euro baino gehiagokoa ez dutenak, hornidura edo zerbitzuen kasuan, eta 40.000 euro baino gehiagokoa ez dutenak, obra kontratuak direnean». Eta prozedura arauturik gabeko kontratazioak egiteko aukerari eusten zaio, zenbateko txikikotzat jotako kopuru horien kasuan. Era horretakoa da galderan aipatzen dena, eta, horregatik, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak halako kontratuetan hornitzailearen eta bezeroaren artean ohikoak diren bilerak eta izapideak egin ditu.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, sinadurako egunean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi (Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren ordean)

10-22/PES-00200. Galdera, Avento enpresari Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeke enkargatu zaion azterlanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Avento enpresari Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeke enkargatu zaion azterlanari buruzkoa. Galdera 2022ko uztailaren 1eko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak galdera idatzia egin du (10-22/PES-00200), jakin nahi baitu ea zergatik enkargatu zaion Avento

enpresari atletismoko pista estali bat eraikitzeke azterlana, zer baloratu den enpresa horrek egin dezan eta zein diren balorazioan sartzen ziren beste enpresak. Hona Nafarroako Gobernu Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Avento enpresa aukeratzeko arrazoiak eta balorazioa 10-22/PEI-00347 informazio eskaerari dagokion erantzunean erantsitako txostenean zehaztu ziren.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 2an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00201. Galdera, Nafarroako Kirol Azpiegituren Planean 2022rako aurreikusitako helburuen betetze mailari eta planaren 2023ko ekintzetarako epeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Kirol Azpiegituren Planean 2022rako aurreikusitako helburuen betetze mailari eta planaren 2023ko ekintzetarako epeei buruzkoa. Galdera 2022ko uztailaren 1eko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak galdera idatzia egin du (10-22/PES-00201), jakin nahi baitu zein den Nafarroako Kirol Azpiegituren Planean 2022rako aurreikusitako helburuen betetze maila eta zein diren planaren 2023ko ekintzak egiteko epeak. Hona Nafarroako Gobernuo Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Kirol Azpiegituren 2022-2025 aldirako Planak jarduketa hauek ditu 2022. urterako:

| JARDUKETA | AURREKONTUA | GAUZATZE EGOERA |
|---|-------------|-----------------|
| Burlatako atletismo pista zaharberritu eta homologatzeko dirulaguntza | 200.000 € | Gauzatua |
| Lankidetzeta-hitzarmena Zizurko Udalarekin, modulu estalia erabiltzeko | | Izapidetzen |
| Lankidetzeta-hitzarmena Iruña Udalarekin, Etxabakoizko modulu estalia erabiltzeko | | Gauzatzeke |
| Azterketa, aurrekontuarena, eraikuntzaren bideragarritasunaren eta atletismo pista estaliaren (200 metro) kudeaketarena | | Gauzatua |
| Amaya KHren beisbol zelaia zaharberritzeko dirulaguntza | 200.000 € | Gauzatua |
| Patin hockeyko pistak birmoldatzearen, kirol horren beharren eta irristaketa pista estaliaren ikerketa | | Izapidetzen |
| Amaya KHrekin lankidetzeta-hitzarmena, 50 metroko igerileku estalia erabiltzeko | | Izapidetzen |
| NUPeko errugbi zelaia zaharberritzea | 70.000 € | Izapidetzen |
| Erabilera anitzeko espazioa alokatzeko beharren azterketa | | Izapidetzen |
| NUPeko golf zelaia berriz zabaltzea | | Gauzatua |
| Toki erakundeen kirol instalazioen erreformarako dirulaguntzen deialdia | 300.000 € | Gauzatua |
| Toki erakundeen kirol instalazioen planak osatzeko laguntzak | 30.000 € | Gauzatua |
| Instalazio mankomunatuena programa ezartzea, Más deporte-Kirol plus txartelaren bidez | 25.000 € | Gauzatua |
| GR bidexken mantentze lanak, Nafarroako Mendi eta Eskalada Kirolen Federazioarekin sinatutako hitzarmenaren bidez | 60.000 € | Gauzatua |
| Instalazio propioetako jarduketak, aisialdiarekin lotuta, Guelbenzu jolaslekuan | 350.000 € | Gauzatzeke |

Nafarroako Kirol Azpiegituren Planean 2023rako aurreikusitako ekintzak gauzatzeko epeei dagokienez, laster definituko dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 2an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00202. Galdera, Neguko Olinpiar Jokoetarako hautagaitzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak Neguko Olinpiar Jokoetarako hautagaitzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko uztailaren 1eko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak galdera idatzia egin du (10-22/PES-00202), Neguko Olinpiar Jokoetarako hautagaitza aurkezteko aukerari buruz. Hona Nafarroako Gobernuo Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Espainiako Olinpiar Batzordeak ez dio hautagaitzarik aurkeztuko Nazioarteko Olinpiar Batzordeari 2030ko Neguko Olinpiar Jokoak egiteko.

2034rako Nafarroako Foru Komunitatea barne hartzen duen hautagaitzarik aurkezteko asmorik badago, Gobernuak baloratu egingen du proposamena, eta proiektuak ekonomian, gizartean, kirolean eta ingurumenean izan ditzakeen ondorioak aztertuko ditu. Nolanahi ere, proiektuan Pirinioak osorik sartu beharko liriateke, eta tartean sartuta egon daitezkeen Nafarroako tokiko eragile guztiak entzun beharko liriateke.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 2an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00203. Galdera, atletismoko pista estali bat eraikitzeko kalkularen zenbatespena enkargatu zaion enpresa espezializatuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, atletismoko pista estali bat eraikitzeko kalkularen zenbatespena enkargatu zaion enpresa espezializatuari buruzkoa. Galdera 2022ko uztailaren 1eko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak galdera idatzia egin du (10-22/PES-00200) Avento enpresak atletismoko pista estali bat eraikitzeko kalkulua egiteko kontsultatu duen enpresari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Aventoren txostenak dioenez, enpresa espezializatu hauek kontsultatu dira: LKS Kream ingeniaritzako estudioa eta Begiristain Arkitektura Bulegoa.

Halaber, enpresa espezializatu horiek eraikitzeko kalkulua egiteko egin dituzten kalkulu ekonomikoak nola egin diren azaltzen da azterlanean. Hau dio:

«02. ERAIKUNTZA

Atletismoko pista estalia izanen duen eraikinarren kostua kalkulatzeko, Espainian azken aldiaren eraiki diren atletismoko pista estalien kostua aztertu da eta datuak alderatu dira ingeniaritzako azterlan espezializatu batekin eta arkitekturako azterlan espezializatu batekin.

Atletismoko pista dituzten ekipamenduetan dauden eraikin motak eta erabilitako kalitateak aztertuta, enpresa espezializatuak zenbatetsi du eraikitzeko kostuaren ratioa 800 € eta 1.000 € artekoa dela metroko koadroko. Hau da, 12.000 m²-ko azalera eraikia duen ekipamendu bat erreferentziatzen hartuta, eraikuntzaren prezioa 9.600.000 € eta 12.000.000 € artekoa izan da.

Beste alde batetik, Espainian azken urte hauetan egin diren obren azken zenbatekoak lortu dira. Eraikuntzaren kostua ateratzeko, zenbateko osoari inbertsio gisa identifikatutako gainerako elementuen kostu zenbatetsiak kendu behar zaizkio. Hauek dira elementu horiek: lurra, atletismoko pista, berariazko ekipamendua eta harmailak.

Aztertutako instalazioen kostua, guztira:

Antequerako indoor pista: 14.100.000 €

Catalunya pista estalia: 12.327.000 €

La Aldehuelako pista estalia (Salamanca): 11.143.588 €

Horiez gainera, Oviedoko Udalera jo da, 3.000 pertsona hartzeko lekua duen atletismoko pista estalia eraikitzeko bideratu duten aurrekontuaz galdetzeko. Hau da bideratu duten aurrekontua: 15.000.000 € gehi BEZa. Aurreikuspenen arabera, 2022an hasiko da lizitazio prozesua.

Aztertutako kasuetako batean ere ez dago jasota ezer ordaindu denik lurra eskuratzeko; litekeena da udalen jabetzako lurretan eraikita egotea. Goragune hidraulikoko sistema duen atletismoko pistari 1.676.836 €-ko kostua egotzi zaio.

Atletismoko pistaren ekipamendu osoari, diziplina guztietan lehiatzeko behar diren elementu guztiak sartuta, 145.200 €-ko kostua egotzi zaio

Harmaila teleskopikoak –500 eserleku, 2.000 izateko aukerarekin– 145.200 € inguruko kostua du. Inbertsiorako partida horien batura 1.967.236 € da. Instalazio eraikien kostu osoari inbertsiorako gainerako partidei dagokien gutxi gorabeherako zenbatekoa kentzen badiogu, eraikuntzaren kostuaren zenbatespena lortzen da. Kasu honetan, 9.176.352 € eta 12.132.764 € artekoa izanen litzateke. Eraikitzeko erabilitako kalitateak, instalazioaren edukiera eta espazio osagarri eraikiak eraikuntzaren kostuan eragina izanen duten aldagaiak dira.

Bi zenbatespenak kontuan hartuta, eraikuntzaren kostu zenbatetsia 9.176.352 € eta 12.132.764 € artekoa izanen litzateke. Instalazio eraikien azken kostuak berretsi egiten du azalera eraikiaren metro koadroko 800 € eta 1.000 € arteko eraikitzeko kostuaren ratioa aplikatuta ateratako zenbatespena. Eraikuntzaren azken kostua

zenbatesteko, bi zifren arteko batez besteko balioa hartu da erreferentziatzat: 10.654.558 €

Ingurua urbanizatzeko lanen kostua ez dago sartuta kalkulu horretan.

Kostu hori aldatu eginen da instalazioaren kokalekuaren arabera. Eraikuntzaren urteko amortizazioa, 68 urteko gehieneko epea aplikatuta, 156.685 € izanen litzateke».

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 2an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00204. Galdera, ematen duten zerbitzuan ordutegi osoa ez duten liburutegi publikoen ordutegiak luzatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patricia Perales Hurtado andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ematen duten zerbitzuan ordutegi osoa ez duten liburutegi publikoen ordutegiak luzatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko uztailaren 1eko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak galdera idatzia egin du (10-22/PES-00204) liburutegietako langileen ordutegiak luzatzeko proposamenari eta proposamen hori gauzatzeko behar den zenbatekoari buruz. Hona Nafarroako Gobernu Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

% 68,9ko lanaldia duten Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegien ordutegiari buruz egindako galderari dagokionez, esan behar da, 2021eko abenduaren 27an, Liburutegi Zerbitzuak txosten hau helarazi ziola Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari:

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren irailaren 13ko 2572/2019 Ebazpena aldatzeko proposamena. Ebazpen horren bidez, baimena ematen da Liburutegi Zerbitzuari atxikita dauden eta jendaurreko arreta-zerbitzua ematen duten liburutegietako langileen lanaldiaren berriazko banaketarako, eta Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegietan lanaldia luzatzeko.

Gobernuaren 2022ko uztailaren 20eko erabakiaren bidez, baimena eman zitzaion Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegietan zerbitzua ematen duten liburutegiko arduradunen lanaldia luzatzeko.

% 92,49ko lanaldia duten liburutegiei, % 99ko lanaldia aplikatzeari eta horrek izanen lituzkeen kostuei dagokienez, esan behar da, aurreko paragrafoan aipatutako lanaldiak luzatu ondoren, 11 liburutegi daudela egoera horretan:

1. Ablitas
2. Oibar
3. Beriain
4. Buñuel
5. Etxarri Aranatz
6. Funes
7. Iruztun
8. Milagro
9. Miranda Arga
10. Olazti
11. Alesbes

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak proposamena egin zuen Liburutegi Publikoen Sareko zentro guztietan ordutegia luzatzeko, lanaldi osoaren ehuneko ehun bete arte, eta 2019ko aurrekontuetan jaso zen proposamen hori. Ondoren, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak % 92,49an finkatu zuen lanaldiaren ehuneko.

Liburutegiko arduradunen plazen (C maila) kostuei dagokienez, hauek dira kopuruak, urteko:

LANALDI OSOA (% 100)

| Lanpostuko ordainsariak | Gizarte segurantza | Guztira |
|-------------------------|--------------------|-----------|
| 24.867,53 | 7.664,16* | 32.531,66 |

(*) Gizarte Segurantzak plaza horietarako duen oinarria hartu dugu kontuan

LANALDI PARTZIALA (% 92,49)

| Lanpostuko ordainsariak | Gizarte segurantza | Guztira |
|-------------------------|--------------------|-----------|
| 22.551,34 | 8.283,00* | 30.834,34 |

(*) Gizarte Segurantzako oinarriaren batezbesteko bat hartu dugu kontuan, plaza betetzen duten titularren inguruabarrak ezberdinak baitira.

– Bi lanaldien arteko aldea 1.697,32 euro da plaza bakoitzeko.

– Dauden 11 plazen zenbatekoa (ehuneko ehun) 18.670,52 euro da.

– 11 liburutegi horietan lanaldia % 99ra luza-tzearen kostua 18.483,82 euro ingurukoa da.

Azkenik, esan behar da, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren 27/2019 Foru Aginduaren bidez onetsitako Kultura eta Kirol Departamentuaren Hizkuntza Planak ezarritako lanpostuen defini-

zioa aplikatzen ahal denean, Irurtzungo, Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegiek berehala izaten ahalko dutela lanaldi osoa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 3an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00205. Galdera, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean ordezkapenak betetzeko irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patricia Perales Hurtado andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean ordezkapenak betetzeko irizpideei buruzkoa. Galdera 2022ko uztailaren 1eko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak galdera idatzia egin du (10-22/PES-00205) Nafarroako liburutegietan ordezkapenak betetzeko edo

ez betetzeko irizpideei buruz eta galdetu du ea arrazoi ekonomikoak baldintzatzen dituen ordezkapen horiek. Hona Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Aldi baterako kontratuak izapidetzeko eskumena Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Langileriaren Kudeaketako Zerbitzuko Barne Igoeraren eta Aldi Baterako Kontratuen Atalari dago-kio. Liburutegi Zerbitzuak kontratazioak baino ez ditu proposatzen, Kultura eta Kirol Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiaren bitartez.

Kontratatzeke irizpideek indarrean dagoen araudia betetzen dute:

68/2009 Foru Dekretua, irailaren 28koa, Nafarroako administrazio publikoetan langileak admi-

nistrazio araubidean kontratatzeko arauak ezar-
tzen dituen

<http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5929895>

814/2010 Foru Agindua, abenduaren 31koa, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak emana, aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onesten dituena

<https://www.navarra.es/NR/exeres/71AA1E1B-B0C8-4D71-A6E1-878AA0480F64.htm>

Liburutegi Zerbitzuak kontrataziorako egindako proposamenei dagokienez, esan behar da 2022ko urtarrilaren 1etik uztailaren 20ra bitartean guztira 79 kontratazio kudeatu direla. 2021ean hasi ziren haietako 33. 2022ko hilabete horietan egindako aldi baterako 46 kontratu horiek arrazoi hauengatik egin ziren:

| | |
|--|-----------|
| Lanaldiaren murrizketak | 4 |
| Aldi baterako ezintasunaren ondoriozko bajak | 9 |
| Amatasun bajak | 4 |
| Zerbitzu eginkizunen ordezkapena | 2 |
| Lanpostu hutsak betetzeko ordezkapenak | 9 |
| Enpleguaren banaketarako baimenaren ordezkapenak | 4 |
| Eszedentzia bereziaren ondoriozko ordezkapenak | 1 |
| Borondatezko eszedentziaren ondoriozko ordezkapenak | 1 |
| Euskarazko ikastaro trinkoen ondoriozko ordezkapenak | 7 |
| Bularra emateko denbora metatzeko lizentziak | 2 |
| Aitatasun baimena | 1 |
| Prestakuntzako zerbitzu berezien ondoriozko ordezkapenak | 1 |
| Oporrak | 1 |
| GUZTIRA | 46 |

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 3an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo